

1.SEGMENTUA

Kafetegia hiru segmentutan banatuko dugu:

- lehenik, gazteak (14-30 urte), hau da, bidejokoak, filmak eta leku eroso eta estetikoak gustuko dituzten pertsonak, espazio pribatuetan lagunekin egoteko eta asialdirako toki atseginak behar dituztenak. Hauek orduz alokatutako areto modernoak erabilgarri izatea nahi dute, baina gogoan izan behar da adingabeek ezingo dutela alkohola kontsumitu kafetegian eta areto pribatuetan.
- Bigarren taldean, familia eta langileak/ikasleak daude, atsedeen hartzeko espazio lasai eta modernoak nahi dituztenak, eta familiarekin edo lagunekin gosaltzeko edo azkarrerako leku atsegin bat behar dute. Hauetarako, deskonektatzeko guneak, bilera txikiak egiteko tokiak eta estilo moderno eta jasangarriak izango dituen espazioak eskaintzea garrantzitsua da.
- Azkenik, moda gustuko duten pertsonak, arropa originala eta estilo informala baina dotorea bilatzen dituztenak, espazio zabala eta eroso behar dute, baita probaleku bereziak eta diseinu apartak ere. Hori guztia kontuan hartuta, kafetegiak gune desberdinetan, bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzuak eta espazioak eskainiko ditu, eroso eta bereziki diseinatutako esperientziak sortuz.